

Joxemari Carrere

IPUIN KONTALARIA

Ikusten den literatura

Arantzazu gogoeta lekua da, batzuentzat behintzat. Leku magikoa ere, bere edertasunean. Galeusca egiteko aproposa beraz. Idazle mordoa gogoeta literario espiritualak egiten Oteizaren gorputz hustuen pean. Hiru hizkuntza ezberdinetan genero ezberdinetako idazkiak egiten dituzten sortzaileak, kezkek, ideiak, galderak eta zerbezak elkar banatzen. Eta Alfonso Sastreren hitzak etorri zaizkit burura: “Ni idazleentzat antzerki mundukoa izan naiz, eta antzerkigintzarentzat idazlea, ezinezko definizio horretan ibili naiz beti”. Eta zioen antzerki idazleak *esateko* idazten duela ez irakurtzeko. Izan ere antzerki testuaren liburua eskenatokia baita. Idazle galego batzuekin hizketan antzerki literatura gailegoaz galdetzen diet. Eta ez didate panorama polita azaltzen. Lehiaketa batzuk ba omen daudela, sustatze aldera, baina ez gehiegi. Gurean ere ez da eremu oparoa. Lehiaketa batzuk egiten dira ere, testuak idazteko bekak; gero, ordea, non daude lan horiek? Zein eskenatokitik ikus daitezke? Edizio galdu batzuetan argitaratuko dira batzuk, liburu denden hautsen gordelekuan ahaztuak izateko. Susa argialetxeak saio polita egin zuen, aspaldi,



DANI BLANCO

euskaraz estreinatutako antzerki lanak argitaratzen, batzuk jatorriz euskaraz sortuak, beste batzuk itzuliak. Eta bitxikeria gertatu zen lan argitaratu horiekin, jende gehiagok ezagutu baitzituen eskenatokian paperean baino. Eta hau da antzez literaturari gertatzen zaion gauzarik ederrena. Antzerki idazle batek zenbat irakurle izango ditu? Bere lana eskenaratuz gero, ordea, zenbat jende ezagutuko du lan hori? Orain ulertu dugu Sastrek esandakoa, alegia, ikus/entzuteko literatura dela antzerkia, irakurtzeko baino.

«
Antzerki idazle batek zenbat irakurle izango ditu? Bere lana eskenaratuz gero, ordea, zenbat jende ezagutuko du lan hori?»
»

Eta Galeuscar itzuliz, behar bada heldu beharreko gaia da hau. Gure hizkuntza txikiengatik sekulako garrantzia dauka antzerkiak, ez bakarrik kultur ekintza gisa, baina baita ere idazleentzat bere sormen lana zabalkunde handiagoa izateko. Zaila da egun, liburu baten mila ale saltzea, ez ordea, behin eskenaraterakoan mila lagunek idazlan hori ezagutzea. Noski, antzerkiak ez ditu gure literatura txikiak salbatuko edo antzekorik, baina tresna liluragarria izan daiteke euskal letrak eta autoreak ezagutarazteko. Elkarlanean bideak zabaldu eta sendotzea baino ez zaigu gelditzen. ■

TXANDAN

Igor Estankona

Zorionak, Kirmen



Hemengo letra txikiak gero eta handiagoak direla badakigunontzat, euskal idazleek mugaz gaindi jasotako aitoren oro da gure literaturari egindako aitorenpena, eta aurrera segitzeko akuilua. Zorionak, Kirmen, asko poztu gara. Saria jasotzerakoan apal gogoratu zinen lagunetaz –bitsetan egongo da Urdangarin–, eta zoli defendatu zenuen zure lana inbidia- eta sikatearen kontra.

Utzidazu gauza pare bat esaten nire bizipozetik, eta ez egidazu txartzat hartu:

Bilbao-New York-Bilbao, beste literatur lan guztien antzera, batzuei gustatu zaie eta beste batzuei ez. Ez dago saririk irakurlearen barru-barruko uste hori alda

dezakeenik. Aurreiritziak norberagan be egoten dira askotan. Bestalde, kritikoak ere irakurle dira, eta liburu batzuk beste batzuk baino gehiago ponderatzen dituzte. Argi dagoena da eurak be saiatzen direla lana ahalik eta prestutasun handienagaz egiten.

Gogora ezazu, eta ahal baduzu zeure buruari sarri esan, saria zurea dela Kirmen. Edo gurago baduzu bidai- izan dituzun guztiena, edo gure hizkuntzarena. Baina musu-laztanka datozkizunez honez gero agintariak, kontuz ibili beharko duzu: dakizunez, mailega ezin dezaketaren interesak kobratu nahi izaten dituzte.

Baina agintariak etorri datoz eta joan doaz, eta idazleok hemen egongo gara. Normalean, idazten. ■